

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak salerosketaren biktima diren emakumeentzako baliabide espezifikoak diruz lagundu du

20.000 euroko laguntza tarteko, aldi bateko harrera eta ostatua erraztuko du, Ixaropen Gune elkartearekin sinatutako hitzarmenaren bitartez

Asteartea, 2018.eko maiatzak 29

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok hitzarmen berria sinatu du gaur goizean Ixaropen Gune elkartearekin, Nafarroan esplotazio sexualerako salerosketatik bizirik atera diren emakumeentzako aldi bateko harrera eta ostatua eskainiko duen baliabide espezifiko eta espezializatu baten kudeaketarako.



Ollok kontseilaria, NBIko zuzendari-kudeatzaile Leranoz eta Ixaropen Gune elkartearen ordezkariak.

Zerbitzuak aldi bateko harrera erraztuko die emakumeen salerosketaren biktimei, baita hauen seme-alaba adingabeei ere, hala badagokio, segurtasun pertsonala eta leheneratzea bermatzeko asmoz. Bi plaza izanen ditu, gutxienez, eta urteko egun guztietan erabili ahalko da alderdi psikologikoak, soziolaboralak eta juridikoak barne dituen arreta-tratamendu integrala jasotzeko. Nafarroako Berdintasunerako Institutuak koordinatuko duen zerbitzu honetatik, nork bere burua ezagutzeko eta leheneratzeko prozesuak bultzatzea dezaketen bestelako ekintzak ere gauzatuko dira emakumeen salerosketaren biktimekin.

20.000 euroko dirulaguntza duen hitzarmen hau Ollok kontseilariak sinatu du elkartearekin ordezkatu duen Carlos González Vázquezekin batera, emakumeenganako indarkeriaren aurka borrokatzeko 14/2015 Foru Legeak agindutakoa betez, izan ere, lege horrek, emakumeen salerosketa emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpena dela ulertuta, salerosketatik bizirik atera diren emakumeentzako harrera-zerbitzua izateko betebeharra ezarri dio foru Administrazioari, esparru horretan lan egiteko prestakuntza eta esperientzia duen lantalde baten gidaritzapean.

Era berean, Nafarroako
Foru Komunitatean
emakumeenganako
indarkeriaren aurka jarduteko

onartu zen 2016ko azaroaren 23ko Legeari atxikitako Ekintza Planean bildutako betebeharraren arabera, Nafarroako Gobernuak era koordinatuan lan egin behar du Foru Komunitatean esplotazio sexualerako emakumeen salerosketaren arloan diharduten bestelako erakundeekin. Zehazkiago esanda, 2018rako programazioaren barnean, hainbat neurri abiaraziko ditu emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen honen prebentzioan eta arretan aurrera egiteko; besteak beste, arreta emateko eta leheneratzeko ostatu-baliabide espezifiko baten sorrera.



Lankidetzeta-hitzarmena sinatzeko unea.

Nafarroan, 2011n sortu zen esplotazio sexualerako emakume eta nesken salerosketaren aurkako Nafarroako Foroa, honelako egoeretan esku hartzen duten erakunde publikoak eta gizarte-erakundeak partaide dituen, salerosketa-sareen bitartez esplotazio sexualaren biktima diren Nafarroako emakumeen egoera aztertze eta, hortik abiatuta, errealitate honi aurre egiteko abiarazten ari diren esku-hartze protokolo eta mekanismoen hobekuntzarako proposamenak egiteko.

Itxaropen Gune elkartea

Itxaropen Gune elkartea bazteketa sozialeko arriskuan dauden giza-errealitateekin konprometitutako profesionalek eta boluntarioek osatzen dute, eta ibilbide luzea egina du arreta zuzena ematen, bereziki prostituzioan diharduten emakume migratzaileei eta esplotazio sexualerako emakumeen salerosketaren biktimei, elkartearen ekintza emakumeek prostituzioa egiten duten lekuetara zabalduz, pertsona hauen eskaerei eta beharrei kasu eginez, autonomia pertsonala nahiz lan-autonomia bultzatzeko banakako laguntza-prozesuak bideratuz eta konplexutasn handiko egoeretan harrerarako, zainketarako zein laguntzarako egoitza-baliabideak eskainiz.

Elkartea Nafarroako salerosketaren aurkako Foroko kidea da, errealitate honetan esku hartzen duten gizarte-erakundeetako bat den aldetik, eta era koordinatuan lan egiten du gainerako gizarte-erakundeekin eta erakunde publikoekin batera, emakumeenganako indarkeriaren aurka jarduteko Ekintza Planean aurreikusita dauden ekintzak garatu ahal izateko.